



Esp. kodea: 2019PHBP0001, 2019PHPB002 Hasiera data: 2019/02/08

ALKATETZAREN ERABAKIA
N19/00529

2019ko apirilaren 12ko datuz, 88 zenbakiko Estatuko Aldizkari Ofizialean, udaltzainburu ofizial eta lehen agente plazak hornitzeko deialdiak argitaratu ziren.

Deialdietan parte hartzeko, 20 egun naturaleko epea eman zen, iragarki laburra estatuko aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunaz geroztik, azken eguna 2019ko maiatzaren 2a izanda.

Legeak ahalbideratzen du epe hori luzatzea hasierako epea bukatu baino lehen.

Hortaz oinarrituta, epea 10 egunez luzatzea egokia da, ahalik eta zabalkunde gehien eduki dezan.

Beraz, legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz honakoa

ERABAKI DUT:

1. Udaltzainburu ofizial eta lehen udaltzain prozesuetan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea 10 egun natural luzatzea, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.
2. Deialdien zabalkunde handia egitea.
3. Dagozkion iragarkiak argitaratzea Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean, Euskadiko Aldizkari Ofizialean eta Estatuko Aldizkari Ofizialean.

ALKATEA

Kodea	N19/00529	Udala	ARRASATE
Data	2019/mai./02	CUDO	000.0055.AAAA8YT1.7.wGUT
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA8YT17.wGUT		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

